

## Igel ilunek hobeto egin zioten aurre Txernobyngo erradiazioari

Txernobyngo eremu babestuko igelak ingurukoak baino ilunagoak dira. Izan ere, melaninak erradiazioetik babesten du, eta litekeena da istripua izan zenean, igel ilunek hobeto aurre egin izana erradiazioari, eta horiek ugaritu izana inguru horretan. Horixe iradokitzen du [Evolutionary Applications](#) aldizkarian argitaratu duten ikerketa batek.


2017tik 2019ra bitartean, 189 ekialdeko zuhaitz-igel (*Hyla orientalis*) aztertu zituzten, erradiazio-maila desberdineko 12 puntutan (batzuk eremu babestuaren barruan, eta beste batzuk kanpoan). Eta azalaren koloreaz gain, igel bakoitzak jasotako erradiazio-dosia eta oxidazio-estresa ere neurtu zituzten.



Txernobylen harrapatutako ekialdeko zuhaitz-igelak (*Hyla orientalis*). ARG.: Germán Orizaola/Pablo Burraco, CC BY-SA.

Eremu babestutik kanpo aurkitutako ia igel guztiak berde distiratsuak ziren, espezie horren ohiko kolorekoak. Eremu babestuan, berriz, nabarmen ilunagoak ziren, batzuk beltzak ia. Eta ikusi zuten istripuaren garaian erradiazio gehien jaso zuten eremuetan zeudela igel ilunenak. Aldiz, ez zuten loturarik topatu egun jasotzen duten erradiazio-mailaren eta kolorearen artean. Badirudi kolore desberdintasuna ez dela egungo erradiazioaren eragina, eta litekeena dela hasierako erradiazioak eragindako hautespen naturalaren eraginez izatea. ●

## Saturnoren eraztunak ilargi baten desintegrazioak sortu zituela proposatu dute



Saturnoren eta haren eraztunen argazkia, Cassini zundaren bidez. ARG.: NASA/JPL-Caltech/SSI.

Saturnoren eraztunen jatorria eta planetaren inklinazioa azaltzeko hipotesi berri bat argitaratu du [Science aldizkariak](#). MIT Massachusetts Teknologia Institutuko astrofisikariek gidatu dute ikerketa, eta, haien arabera, ilargi baten desintegrazioak sortu ziren Saturnoren eraztunak.

Krisalida deitu diote ilargiari. Kalkulatu dute lapetus ilargiaren neurria zuela gutxi gorabehera (lapetusek 1.470 kilometro inguruko diametroa du, eta Saturnoren ilargirik handienetan hirugarrena da). Hipotesiaren arabera, duela 150 milioi urte inguru, Krisalidaren orbita desegonkortu egin zen, eta gehiegi gerturatu zen planetara. Marea-indarren eraginez, ilargia desintegratu egin zen; arrokek elkarren aurka jo zuten, eta zati txikiagoak sortu ziren. Zati horiekin osatu ziren Saturnoren eraztunak. Gainera, eraztunak zergatik diren hain gazteak ere azaltzen du hipotesiak, planetak 4.500 milioi urte baino gehiago baititu.

Bestalde, astrofisikarien ustez, gertakari horrek berak eragin zuen Saturnok 26,7°-ko inklinazioa izatea eta Titan ilargiaren orbita hain eszentrikoa izatea. Hain zuzen, Titan kanporantz migratzen ari da, abiadura handian: 14 cm urtean. ●